



OINKARIKO LAU DANTZARI FINALEAN

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketetan ariko dira Beñat Monfort, Axier Iriarte, Lierni Kamio eta Ane Urruzola > 5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-05-16

VII. URTEA 1.703. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Asteasun idi proba egin zuten eta, urtero bezala, jende ugari hurbildu zen. I. GARCIA

GURE BASERRITARREN OMENEZKOAK

TOLOSALDEA Atzo San Isidro Eguna ospatu zuten eskualdeko hainbat herritan; herri kirolak, bazkariak, mezak, ... ez ziren falta 4

Juan Garmendia Larrañagaren lana goraipatu dute bere azken lanaren aurkezpenean

TOLOSA Herenegun aurkeztu zuten 'Obra Osoak'-en hamargarren liburukia 3



Herenegun egin zuten liburuaren aurkezpena udaletxean. E. EZBIZA

Herritarrek udal zerbitzuen lana baloratu ahalko dute


TOLOSA Inkestak egingo dituzte etxez etxe eta telefonoz, Kudeatuz programaren baitan 3

'Ama-Afrika' etzi bidaien inguruko jardunaldien baitan

Lizartzako Kultur Astearen baitan ekitaldi ugari

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Herriz Pasaletikua 95 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 878



Ezker abertzaleko hautetsiek bat egin dute Greba Orokorraren deialdiarekin

Ekonomia » Herritarrak deitzen dituzte «aldaketa politiko eta sozialaren alde» bertan parte har dezaten.

ERREDAKZIOA

Tolosako ezker abertzaleko hautetsi eta hautetsi ohiek, «azken 30 urteotan Tolosako Udalean gure herriaren eskubide politiko eta sozialen alde borrokatu dugunok», bai Euskal Herriak bai eta Tolosak ere aldaketa behar duela adierazi dute, «euskal herritar guztion eskubide politiko eta sozialak bermatzea ekarriko duen benetako aldaketa». Hori dela eta, ELA eta LAB sindikatuek hilaren 21erako deitu duten Greba Orokorrarekin bat eginaz, herritarrei egin diete deialdia «aldaketa politiko eta sozialaren alde» bertan parte har dezaten.

«Marko antidemokratikoaren erabateko porrota»

Ezker abertzaleko hautetsi eta hautetsi ohiek herenegun eginiko agerraldian esan bezala, «eskubide



Tolosako ezker abertzaleko hautetsiak eta hautetsi ohiak, herenegun eginiko agerraldian. I.T.

politiko eta sozialen alde egin dugun borroka horren ondorioz izan gara erakundeetatik kanporatuak, eta hori dela eta, gaur egun, milaka eta milaka euskal herritarren ordezkari dago erakundeetatik kanpo».

Horrek «trantsizioaren amaiera baino, orain 30 urte inposatu zitzaigun marko antidemokratikoaren akabera, erabateko porrota»

erakusketan du hautetsien arabera.

Horregatik ikusten dute beharrezkoa aldaketa, «euskal herritar guztion eskubide politiko eta sozialak bermatzea ekarriko duen benetako aldaketa, Euskal Herria aitortu eta gure etorkizun politiko, hizkuntzazkoa, ekonomikoa eta sozio-laborala euskal herritarren erabaki demokratikoaren

menpe jarriko duen benetako aldaketa». Hala, aldaketa hori lortzeko bidean ulertzen dutela diote datorren ostegunerako deituriko Greba Orokorra: «Lagileek eta gizarteak gertatzen ari denaren aurka altxa eta politika ekonomikoan zein sozio-laboralean aldaketa sakonak eskatzeko, eta gauden egoerara eraman gaituzten politikatan atzerakoiak arbuizatzeko».

Bestalde, ezker abertzaleko hautetsien ustez, krisia azken hamarkadetan garatutako politika publikoen ondorio zuzena da: «kapitalaren errentari zergetan beharpenak aplikatuz, etxebizitza politika espekulatzaileak eginaz, zerbitzu publikoen merkantilizazioa eta pribatizazioa bultzatuz; finean, erakunde publikoek kudeaketa alderdikoi eta klientelista egitearen ondorio zuzena».

Krisiaren irtenbidea «langileen bizkar»

Hala, krisiaren oinarrian «abertasunaren banaketa bidegabean oinarritutako politika» dagoela gehitzen dute, eta ezin dutela onartu irtenbidea langileen bizkar egitea, «lanpostuak ezabatuz, pertsonen bizi baldintzak gaitortuz, gastu soziala murriztuz eta zerbitzu publikoen kalitatea jaitsiz; eta honen guztiaren aurka bat gatzoz gehiengo sindikalaren eta jendar-tearen mahi eta borrokaarekin».

Horregatik, Greba Orokorrarekin eta egun horretarako antolatutako ekimenekin bat egiten dutela diote, herritarrei parte hartzeko gonbita luzatuz. «Benetako aldaketa politiko eta soziala» aldarrikatzen dute, eta «zerbitzu publikoen hobekuntza eta kontrol soziala». Halaber, «zerga-politika bidezko eta aurrerakoia egin ahal izateko» protagonismo berezia eskatzen dute udalentzat.

Mahala Triatloi Taldeak ekin dio denboraldi berriari

Kirola » Taldeka lehen hamar onenen artean sailkatzea lortu zuten pasa den asteburuan, Senperen izandako proban.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko Mahala Triatloi Taldeak hasi du denboraldi berria. Hain zuzen ere, pasa den astean ekin zion Senperen. Emaitzarekin gustura geratu dira taldekoak, izan ere, «zagoon maila ona kontuan hartuta» hamar talde onenen artean sailkatzea lortu zuten.



Mahala Triatloi Taldeko kideak. HITZA

Lehen proba «datozen asteotako lehiaketa erritmora ohitzeko» baliatu zuten, «bertan nazioarteko partaidetza izan baitzen», errusiar selekziozko zenbait partaide esaterako irteera puntuatzen ziren. Hala, taldeka lehen hamar talde indartsuen artean sartzea lortu zuten Tolosaldeko Triatloi Taldekoek eta bakarkakoan parte hartu zuten guztiek proba amaitzeko aukera izan zuten, «eta ez da gutxi zegoen maila kontuan hartuta».

Euskadiko zirkuituko proba

Bestalde, asteburu honetan Deban izango dira Euskadiko zirkuituko lehen proban lehiatzen, distantzia sprintean (750 igerian, 20 bizikletan eta 5 korrika), hain zuzen ere. Beraz, denboraldi berriaren bete-betean dira Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeko partaideak.

Aiz-Orratz elkartearen festa eguna ospatuko dute bihar

ERREDAKZIOA

Pasa den asteartean, hilaren 12an bete zituen Tolosako Aiz-Orratz elkarteak 75 urte. Hain zuzen ere, urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatutako urtean zehar. Hala, bihar, festa eguna izango dute elkarteak: 10:00etan meza izango da Santa Klaran, ondoren hamaiketako eta toka txapelketa elkarteak, Tolosako Txistulariekin. Hain amaituta, poteoa izango dute txarangarekin, eta gero bazkaria, Fronton jatekxan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



'Obra osoak'-en aurkezpen jendetsua

TOLOSA ● Jende gainezka ikusi zitekeen herenegun Tolosako batzar aretoa. Arrazoaia, Juan Garmendia Larrañaga antropologoak *Obra Osoak*en hamargarren eta azken liburukia aurkezten zuela. Berarekin batera, mahaiaren inguruan izan ziren, Jose Mari Velez de Mendizabal, Jesus Altuna, Maria Jesus Aranburu, Jokin Bildarratz, Mikel Irizar eta Xabier Men-

diguren. 1997an hasi zen Juan Garmendia Larrañagaren *Obra Osoak* argitaratzen Kutxa. Honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan zuen hasieratik. Hamargarren liburuki honetan, sona handiko antropologoaren azken lanen bilduma eta orain arte argitaratu gabeko beste zenbait testu editatu ditu Eusko Ikaskuntzak. ESTEIZEA

Udal zerbitzuak baloratu ahal izango dituzte herritarrek, inkesta bidez

Tolosa ● Kudeatuz programaren baitan, telefonoz eta etxez etxe bidalita egingo dira galdeketak.

ERREDAKZIOA

Tolosarrekin udal zerbitzuak baloratzeko aukera izango dute inkesta baten bitartez. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak, Eudelekin lankidetzan sinatutako akordio baten ondorengo ekimen hau. Bertan definitzen da Kudeatuz programa, eta honen helburuetako bat da, herritarrek politika publikoak ebaluatzeko planak ezartzea.

Bi moduz jasoko dituzte Udalekoek iritzia. Alde batetik, 450 tolosarrekin telefonoz egingo dute, eta hauek, Tolosari buruzko hainbat galderari erantzun beharko diete. Deia jasoko dutenak nortzuk diren erabakitze, inkesta egiteaz arduratzen den enpresak, herritarren adina, sexua, eta bizilekua hartuko ditu kontuan. Dagoeneko zenbait lagunek jaso dituzte dei hauek, eta ondorengo gaien inguruan egin dizkiete galderak: partaidetza, kolektorearen lanak, herri barruko desplazamenduak, garraio publikoa, trafikoa, aparkalekuak, etxebizitzak, parkeak, segurtasuna... Honez gain, Udalak eskaintzen dituen zerbi-



Herenegun aurkeztu zuten ekimena Antton Lekuonak eta Iurre Peñagarrikanok. E. ZEIZA

tzuei buruz ere iritzia eman ahal izango dute: gizarte zerbitzu, kultura, gazteria, kirola, zerga-bilketa eta abarren inguruan. Usabal, Kultur Etxea eta Aranburu Jauregia udal eraikinak ere baloratu ahal izango dituzte. Azkenik, Udalaren lanari guruz galdetuko diete.

Bestalde, herriko etxebizitza guztietara paperean idatzitako inkesta laburrago bat jasoko dute. Honekin, udal zerbitzu guztiak baloratzeko aukera izango dute. Beraz, tolosarrekin, inkestarekin bate-

ra iritsiko zaien kartazalean sartu eta Correos-eko postontzian utzi beharko dute. Datorren astean hasiko dira banatzen inkestak. Hilarteren buruan, gutxi gorabehera jakingo dira emaitzak, eta hauek aztertuko dituzte, ondoren Tolosa 2015 egitasmoan kontuan hartzeko.

Iurre Peñagarrikanok Tolosa 2015 saileko zinegotziak eta Antton Lekuona teknikariak aurkeztu zuten herenegun ekimena. Agerraldian, herritarrek animatu nahi izan zi-

tuzten inkesta hauek erantzuten aktiboki parte hartzea. «Tolosaren iritzia ezagutu eta aztertu ahal izango baita erantzunei esker» agertu zuten. Azterketa honen helburua da, herritarrek zerbitzu publikoak eta udal eremuko beste errealitatei buruzko asebetetze maila ebaluatzeko prozesu bat da. Kalitate eta kantitate ikuspuntutik hobekuntza prozesuak ezarri, udal bizitzaren garapena sustatu eta dagozkien politiken parame- troak finkatzen laguntzeko.

Laburrak

Batzar Nagusietako autobusa bertara dator

AMEZKETA ● Gipuzkoa oinarri, Gipuzkoa helburu kanpaina ibiltaria dela eta Batzar Nagusietako autobusa didaktikoa Amezketan izango da etzi. Beltzaren plaza ondoko aparkalekuan egongo da, goizez eta arratsaldez. Herriko ume, gazte nahiz helduek bisitatu ahal izango dute autobusa. Hauek, gela didaktikoa ezagutu eta bertan ordenagailuetan ibiltzeko aukera izango dute.

Rafting irteera antolatu du Oargik, hil bukaerarako

TOLOSA ● Oargi mendi elkarteak irteera bat antolatu du hil honen amaierarako. Maiatzaren 29-31ko asteburuan rafting egitera joango dira Murillo de Gallegon izeneko lekura. Espezializaturiko abentura enpresa batekin rafting egiteaz gain aisi tartean ibilaldiak, eskalada edo barranko jaitziera egiteko aukera izango dute. Interesatuak hilaren 25a baino lehen eman beharko dute izena eta 3035 0028 11 0281141038 kontu korrontean 20 euroko diru sarrera egin beharko dute.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbol: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxi: 943 670420

Taxi (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Herri kirolak nagusi

San Isidro Eguna »

Baserritarren zaindariaren omenez ekitaldiak antolatuz zituzten atzo eskualdeko hainbat herritan eta, ohi denez, herri kirolak izan ziren horien artean.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat herritan ospatu dute San Isidro Eguna. Amasan, Asteasun, Berastegin eta Zizurkilaren egun horretako ekitaldiak antolatu dituzte eta Iruran eta Alkizan, herriko Kultur Astearen txertatu dituzte. Baserritarren zaindaria da San Isidro eta atzoko ekitaldiek herri kirolekin zuten zerikusia. Ez ziren falta meza ospakizunak eta bazkari edo afariak ere.

Zizurkilan, esaterako, Aimar Irigoien eta Izeta II.a harri-jasotzaileek erakustaldia eman zuten. Beraiekin batera, lau aizkolari aritu ziren lehian, bikoteka: Joseba Otaegi-Oihan Larretxea eta Jokin Alkizalete-Unai Otaño. Bixente Gorostidi eta Josu Oiartzabal berrosolariek animatu zuten ekitaldia.

Amasan, aurtengoan ahari joko erakustaldia ikusi ahal izan zuten. Asteasuko Urki baserriko Juanito Albusuk eta Agarre-Legarreta baserriko Lorenzo Barriolak maneja zuten zutuzten ahariak. Asteasun plazako probalekuaren inguruan bildu zen jendea beste behin. Oraingoan idi dema ikusteko aukera izan zuten. Alde batetik Olarra-Goikoa jatetxearen izenean ateratakoa eta bestetik Joxe Barriolaren idi-pareak. Berastegin, besteak beste, 88 lagun elkartu ziren Arregi jatetxearen bazkaltzeko.

Kultur asteen baitan egindako ekitaldiei dagokionez, Iruran Lore Amenabar soinu jotzaileari omenaldia egin zioten Loatzo musika eskolako ikaskideek eta herriko dantzariak. Merienda ere izan zuten ondoren. Alkizan, besteak beste, haurren jolasak, erakusketa eta baserritarren arteko afaria izan zuten.




Zizurkil. Izeta II.a ahaleginean. I. GARCIA



Berastegi. Lagun ugari elkartu ziren Arregi jatetxean. I. GARCIA



Irura. Lore Amenabarri egindako omenaldiaren une bat. I. GARCIA



Alkiza. Baso ustiatetari buruzko erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean. I. GARCIA

Gaur, kultur asteen jarraipena

Irurako Kultur Astearen gaurkoan Ikastolaren Eguna izango da. Goizean zehar txistulariekin kalejira, Haur Hezkuntzako ikasleen dantza ikuskizuna eta Lehen Hezkuntzako ikasleen eta gurasoen arteko jolasak izango dira. Bazkaria egongo dute eta arratsaldean Poxpolo eta Mokoloren *Mekatxis Mariatxi* emanaldia frontoian.

Alkizan ere izango dira gaur ekitaldiak. Goizean mendi ibilaldia izango dute. Arratsaldean Aiztondoko kirol topaketak, erakusketa, filmak ikustea, Frontenis Txapelketako finalak, Ermioko Kableari buruzko mahaingurua eta txondorraren irekiera egingo dituzte.



Asteasu. Olarra-Goiko jatetxeiko idi pareak mugitzen probalekuan. I. GARCIA



TXOKO HITZA

2 sarrera pare
20:00etako emanaldirako

• Iolanda Etxeberria Mazkarian
• M^a Jesus Galarza Arregi

Antolatzaileak: Larraunaldeko Euskara Zerbitzua eta Mitxuasenea Kultur Etxea
Babesleak: Berria eta Hitza

Oreka TX

Gaur • Maiatzak 16
Larunbata
Lekunberriko frontoian

sarrera pare bat
21:00etako emanaldirako

• Mikel Irujo Albiasu

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue



sarrerak

saridunak

• Oskar Patrocino Olaizola
• Gorka Otxoa-Aizpurua


Maiatzak 16 • Larunbata
16:30ean
Tolosako Beotibarren

Apeztekoa - Cabrerizo II

OLAZABAL // BEROIZ
(2. mailako Buruz buruko finalerdia)

Capellan - Lasa III
Mikel Goñi - Eulate





Lehiaketetan zehar parte hartu duten Oinkariko dantzari batzuk. HITZA

Oinkarikoak Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketetako finaletan

Villabona » Gazte mailan lau dantzari ariko dira; mutilek Errenterian izango dute finala eta neskek, berriz, Legazpin.

dantzariak parte hartuko dute azken txanpan honetan. Mutilek Aurresku Txapelketako finala gaur 18:00etan izango da Errenterian Niessen kultur aretoan. Bertan Oinkariko Beñat Monfort eta Axier Iriarte ariko dira.

Nesken Soinu Zahar Txapeleketako finala bihar izango da, 11:00etan, Legazpiko enparantzan. Final horretan Lierni Kamio eta Ane Urruzola Oinkariko dantzariak parte hartuko dute.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan ospatuko dira gazte mailako Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketako finalak. Villabonako Oinkari dantza taldeko lau



Oinkariko lau dantzariak lortu dute finalerako txartela. HITZA

Hautetsi independentistek beraien babesa «kriminalizatzea» gaitzetsi dute

Villabona » Ez dute ulertzen Iniciativa Internacionalista legez kanpo uzteko prozesua hastea beraien babesagatik.

ERREDAKZIOA

Villabonako hautetsi independentistek ez dute ulertzen Iniciativa Internacionalista (II) alderdiari euren atxikimendua agertu izanagatik alderdi hori legez kanpo uzteko abiarazi duten prozesua. Euren babesa «kriminalizatzea» erabili izanagaitzetsi dute.

Esandakoaren arabera, zinegotziek PSOE, PP eta IU alderdiek Irii euren atxikimendua kendu eta gero eman zuten babesa. «Zinegotzietako bat Iniciativa Internacionalistakoa pertsona baten laguna da» eta beste alderdiek euren babesa kendu ostein deitu zion hautetsi independentisten babesa eskatzeko.

Laburrak

Belaunaldien Eguna gaurkorako Gaztetxean

ANOETA » Gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, gaurkorako Gaztetxeko Belaunaldien Eguna antolatu dute. 12:00etan, gutunaren irakurketa eta makroargazkia egingo dute. 14:00etan, belaunaldi guztien bazkaria. Bazkalondoren, argazki emanaldia egingo dute. 18:00etan poteoa herrian zehar txarangarekin. 21:00etan afaria Gaztetxean eta 23:00etan Deskontrol eta Txapel punk taldeen kontzertuak Gaztetxean.

Asteburuan jubencil, kadete eta alebinen partidak

VILLABONA » Villabona futbol elkarreko taldeek partidak dituzte asteburuan. Kadeteek Sanseren aurka dute gaur 12:00etan, etxean, Arratzain futbol zelaian. Alebinek Kopako partida dute gaur ere, 11:00etan, Trintxerperen aurka Trintxer futbol zelaian. Jubencilak bihar dute partida, 16:30ean, Sanseren aurka Felix Garin futbol zelaian.

'Monstruos contra alienigenas' filma Gurean

VILLABONA » Gurea aretoan *Monstruos contra alienigenas* filma emango dute asteburuan. Gaur 19:00etan izango da eta bihar 17:00etan.

Denboraldiko azken partida Lakunzakoentzat

VILLABONA » Transportes Lakunza areto futbolero taldeak gaur jokatuko du denboraldiko azken partida Beti Arinen aurka. Olaederra kiroldegian izango da, 18:00etan, eta zenbait ekimen berezi antolatu dituzte. Hasieran bertsolari bat izango da eta ondoren dantzarien emanaldia izango da. Partida baino lehen zozketa egingo dute. Txartelak salgai izango dira euro baten truke. Zuzurkilgo %Dia supermerkatuak emandako urdaiazpiko bat jasoko du lehenengo saritua eta bi ardo botella bigarrenak. Lakunzakoek eskerrak ematen dituzte urtean zehar partidak ikustera eta taldea animatzera joan diren zaleei, bai Olaederra kiroldegira baita kanpora joandakoei.

Dastatu Euskal Herriko produktuen zaporea, berriaren udaberriko eskaintzarekin

Haragi sorta
Sorta berriak 1 eta 2 kilo dituzte. Hain zuzen ere, haragi arrea, sarraketa, zambora, gogoratu eta baxta.

5 kiloko sorta **58 €**

Alloko zainzuriak
Lata bakoitzan 6 kilo 8 zainzuri dituzte eta 300 gramo produktua da. Zehar sartutako produktuak dira eta berriei eragozten ez dute.

4 latako sorta **54 €**

Juantezko hegazkuzea
Bakabako hegazkuzeko haragiazko produktuak dira. Hain zuzen ere, haragi arrea, sarraketa, zambora, gogoratu eta baxta.

6 latako sorta **49 €**

Noiz eta nola egin eskaria?

Apirilaren 23tik maiatzaren 17ra aukera izango duzu:

- 1. Telefonoz: 943-37 43 45
- 2. Orain: haragietza@berria.info

Zehazki nahi duzun helburuak gurekin deitu eta zehazki, zehazki, zehazki nahi duzun informazioa emango dizugu.

BERRIETA GASTUAZ DOAZ.

ALFAR LA MAJA
OLIO OLIO BIRJINA EXTRA
Sukarra berria
ARABIA BARATIA

Mendakian ezarritako berrizko berria
Hain zuzen ere, haragi arrea, sarraketa, zambora, gogoratu eta baxta.

6 botelako kutxa **36 €**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Kultur Astearen harira ekitaldi ugari antolatu dituzte

Lizartza » Udal Alternatiboko kideek prestatu dute egitaraua; tartean hitzaldiak, musika eta zinea izango dira.

ERREDAKZIOA

Lizartzako Udal Alternatiboak Kultur Astea antolatu du datorren asterako. Astelehenean hasiko dituzte ekitaldiak Luis Mari Intzask eskainiko duen *Erleen Historia* hitzaldiaren eskutik eta honetaz gain, umeentzako jolasak eta ekitaldiak izango dira astean zehar, baita zinea, antzerkia eta musika ere.

Euskal Selektzioaren inguruko hitzaldia ere antolatu dute eta ESAITeko kideak izango dira herriaren horretarako. Itziar Arratibel, ESAITeko lehendakaria; Aitor Esnaola Gipuzkoako Herri Kiroletako lehendakaria; eta Patxi Jauregi, Gipuzkoako Pilota Federazioko

lehendakaria izango dira hizlariak, hain zuten.

Astean zehar egongo diren ekitaldiekin batera Gunean margo-lanen erakusketa ere ikusi ahal izango da aste osoan zehar.

Bertan Antton Etxarriren, Paulo Donezarren eta Koletasen lanak ikusi ahal izango dira.

» EGITARAUA

Hilak 18, astelehena

■ **20:00etan.** *Erleen historia* Luis Mari Intzaren eskutik, Gunean.

Hilak 19, asteartea

■ **16:30etan.** Gunean Porrotx pailazoarekin bihurrikariak eta muxuak. Ondoren, txokolatada.

■ **20:00etan.** Gunean mahain In-gurua: *Euskal Selektzioak* ESAITen eskutik.

Hilak 20, asteazkena

■ **20:00etan.** Gunean film Emaldia: *Istanbuletik Johannesburgera*:



Garazi Esnaola piano jotzailea ariko da ostiralean Garazi Egigurenekin. HITZA

Ekialde Hurbila. Fernando Rojo tolosraren eskutik

Hilak 21, osteguna

■ **Greba Orokorra.** ELA eta LAB sindikatuek deitutako Greba Orokorra dela eta ez da ekitaldirik izango.

Hilak 22, ostirala

■ **20:00etan.** Kantu Poteoa.
■ **22:30etan:** Gunean musika taldea: Garazi Esnaola piano jotzaile lizartzarra eta Garazi Egiguren abeslari tolosarra.

Hilak 23, larunbata

■ **16:30etan.** Ume-jolasak.
■ **22:30etan.** Antzerki emanaldia: *Baserritik baserrira. Emakumeen Elkarte.*

Hilak 24, igandea: Helduen Eguna

■ **11:00etan.** Hamaiketako elkar-
tean.
■ **12:00etan.** Pilota saioa.
■ **14:00etan.** Helduen bazkaria doan.
■ **18:00etan.** Herri kirolak: Lizartza-Gaztelu.

Gutunak

Zorionak Anoetako Gaztetxea!!

10 dira Edurkako txokotik herria astintzen daramatzazuen urteak, 10 urte herriari bizitasuna emanez, 10 herriaren etorkizuna lantzen, herri baten etorkizuna herriko gazteen esku baitago.

10 urte hauetan etorkizunaren kimuak landatu eta ureztatu dituzte belaunaldiz belaunaldi, herriko gazte mugimendua indartuz.

Orain dela 10 urte bertan behera utzitako fabrika, amets fabrika bilakatu zenuten eta ametsak bizirik dirau.

10 baino gehiago izan dira urte hauetan guztietan gaintu behar izan dituzten oztupoak, baina oztupo bakoitzeko mila pauso eman dituzte. Eta pausok egiten dute bidea.

Une askotan bide-lagun izan gara; herriko ekimenetan izan duzuen partaidetza, jarritako ilusioa eta lanerako gogoia eskertzeokoak dira benetan.

Argi dugu herria gazteek eraiki behar dutela. Eskerrik asko 10 urte hauetan hori lortzeko egindako lanagatik.

Anoetako Udaleko hautetsi independentisten izenean zorion-uholdeak zuentzat.

Anoetako Udaleko hautetsi independentistak.

Asteburu honetan bukatuko da XIX. Kultur Astea

Berrobi » Ibilaldia, toka, musa eta frontenisa izango dira gaur; biharko txakoli dastaketa eta erromeria antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Berrobiko XIX. Kultur Astea igande honetan amaituko da.

Gaur 09:00etan bi orduko Mendi Martxa izango da (Berrobi-Leaburu - Belauntza - Berrobi); 16:00etan Mus Txapelketa egongo da Solastokian eta 18:30ean Toka Txapelketa Solastoki aurrean. 19:00etan Umeen I. Frontenis Txapelketako finala egongo da. Bihar igandea, aldiz, 12:00etan txakoli dastaketa egongo da Udaletxe aurrean eta 17:30ean umeen erromeria egongo dute.

Berastegin

**Zelai taberna
ALOKATZEN DA**
Deitu arratsaldez
606 742 408

'Babel Mundua' antzezlan eskainiko dute Iruran eta Anoetan

Inmigrazioa » Lehen Hezkuntzakoek ikusiko dute lana; Iruran astelehenean eta asteartean Anoetan.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Garatzen Agentziak *Tolosaldeko Elkar Ezagutzen* izeneko I. Immigrazio Plana bultzatzeko hainbat ekitaldi egiten ari da. Honen haritik, *Babel Mundua* antzerki-obra eskainiko diete Anoeta eta Irurako haurrei heziketan kulturartekotasuna lantzeko.

Antzerki-obra euskaraz idatzita egon arren, bestelako hizkuntza batak ere erabiltzen dituzte tarteka, hala nola arabiera edo errumaniera.

Babel Mundua astelehen honetan eskainiko dute Irurako Ikastolan 15:00etatik aurrera eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek (73 neska-mutil) hartuko dute parte.

Anoetan berriz, hilaren 19an, asteartean, izango da saioa 11:30ean, herriko Polikiroldegan. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek (110 neska-mutil) hartuko dute parte.

'Ama-Afrika' ikus-entzunezkoa eskainiko dute, etzi Kultur Etxean

Ibarra » Astelehenean hasiko dute Ibarako Kultur Etxean 'Munduan zehar bidaiatuz' jardunaldien ikus-entzunezkoen emanaldia.

REBEKA CALVO

Pasa den hilaren 8an hasi zen berez Ibarako Kultura eta Gazteria Sailak antolatutako *Munduan zehar bidaiatuz* bidaiaren inguruko jardunaldia, baina orain arte Kultur Etxean ikus daiteken *Te Pito o Te Henua* argazki-erakusketa izan da ekitaldi bakarra. Gainontzekoak, ordea, etzi hasiko dira.

Guztira bost ikus-entzunezko eskainiko dituzte, horrela euskal bidaiarien ikuspuntuak eta esperientziak bertatik bertara ezagutu ahal izateko. Asteleheneko emanaldia 19:30ean izango da Kultur Etxean eta bertan Onditx Jauregi eta Luisa Montecelo billabonataren esperientzia ezagutu ahal izango da. Bi gazteak Afrikan berrera izan ziren zortzi hilabetez eta bertan ezagututako guztia *Ama-Afrika* ikus-entzunezkoan bildu zuten. Maroko, Mauritania, Mali, Burkina Faso, Ginea Co-

nakry eta Senegal izan ziren. Asteartean, hilak 9, Eneko Etxeberria eta Miyuki Okaberen txanda izango da. Bi bidaiari gazte hauek *Eneko eta Miyuki, tandemean Hegoameriketan barrena* lana eskainiko dute (19:30ean Kultur Etxean). Lanak tandem batean 40 hilabetez Hegoamerika aldetik alde gurutzatutakoan ikusitakoa biltzen du. Munduko hiririk hegoaldekoenatik, Ushuaiatik (Argentina), Caracasera (Venezuela) bidea ikusi daiteke, hortaz.

Iran, topikoak baztertuz

Asteazkenean, hilak 20, Iran gertuagotik ezagutzeko aukera izango da Ibaran (19:30ean Kultur Etxean). Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen *Iran: Topikoen aurkako bidaiak* ikus-entzunezkoan gaur egungo Iran ikusi ahal izango da; lurralde segurua, abegitsua eta bidaiariari ustekabe anitz eskaintzen dion herrialdea, Gallastegi eta Aranzabalen hitzetan.

«1979. urteko iraultzarekin Sha tronutik kendu zutenetik eta klerigoek Islamiar Errepublikaren zuzendaritza hartu zutenetik, Irani buruz erakusten diguten irudia in-mobilismoarena eta emakumeen

derrigorrezko beloa dira. Ikuspegi hau ere gehiago puztu dute itzal handiko zenbait komunikabideek, 'terrorismoaren laguntzaileen' zerrendaren buru jarri ditunetik», azaldu dute.

Vietnam ezagutzuz

Maiatzaren 22an, ostirala, Egoitz Etxenauria eta Urzi Uriarteren *Vietnam: Iparraldeko lurak* ikusteko aukera izango da (19:30ean Kultur Etxean). Urzi Uriarte *Te Pito o Te Henua* argazki-erakusketakako egilea da baita eta beste herrialde batzuren artean Vietnamen ere izandakoa da. Udalak ikus-entzunezko honen inguruko bideo labor bat eskegi du bere webgunean (www.ibarrakouda-lan.net).

Munduan zehar bidaiatuz jardunaldiak hilaren 25ean, astelehena, bukatu dira tolosar baten lanarekin. Angel Cuerdoren *Jordania zaldiz, Lawrencearen arrastoari segika* ikus-entzunezko eskainiko dute (19:30ean Kultur Etxean). «Petra hiri magikoan zaldi bat eskuratu eta nire ibilbideari ekin nion. Helburua 300 km egina eta Nebo mendi sakaratura iristea zen», argitu du bidaiariak.



XXIII. Bertsopaper Lehiaketan eskualdeko ikasle ugari saritu zituzten herenegun Leitzako Zinean. HITZA

Leitzako eta Aresoko ikasleak Bertsopaper Lehiaketan sarituak

Bertsolaritza »

Lehen Hezkuntzan bi leitzar nagusitu ziren: Joanes Illarregi eta Martxel Intxausti.

ASIER IMAZ

Nafarroako eskolarte bertsopaper lehiaketa zonaldeka jokatzeko da. Leitzako eta Aresoko mendebaldeko zonaldean sartzen dira eta herene-

gun Leitzako Zinean sariak banatu zituzten.

XXIII. Bertsopaper Lehiaketa

Lehiaketa hiru mailatan banatzen da. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek bertso bat edo bi kopia aurkeztu behar dituzte. 5. eta 6. mailakoek bi bertso eta DBHko lehen bi mailakoen hiruna bertso.

Herenegun XXIII. Bertsopaper Lehiaketako sariak banatu ziren.

Bertan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan Leitzako Erieta eskolako Joanes Illarregi izan zen irabazlea. Aipamenak Aresoko eskolako Beñat Etxezarretak eta Erieta Beñat Altzelaik jaso zituzten. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan bertsoak, Leitzako eskolako Martxel Intxaustik jaso zuen saria. Aipamenen artean Aresoko eskolako Saioa Baraibar zegoen. Bigarren Hezkuntza 1 eta 2. mailan, hiru saridunak goizuetarrak izan ziren.



Gurasoak seme-alaben aurrean

ARESO • Amaia Vazquezen azken hitzaldia atzo burutu zuten udaletxean. Bertan 10 guraso inguru elkartu ziren. Amaia Vazquezen hitzaldia baina gehiago den artero hizketaldia izan zen, izan ere, gaiak Vaz-

quezek bideratzen baldin bazituen ere, bertaratu zirenek euren esperientziak kontatu zituzten. Besteak beste seme-alaba eta gurasoen arteko harremanen gainean aritu ziren hizketan. ASIER IMAZ



Denboraldiko azken ikurrina Maulen jarriko dute hilaren 23an eta 24an. A.I.

Maule eta inguruak «barnetik ezagutzeko aukera bikaina»

Ibarra » Xiberoa ezagutzeko asmoarekin irteera antolatu dute Bai Euskal Herriarik eta Haitzetan Rajuk.

A. IMAZ

Ibarrako Bai Euskal Herriari herri ikimenak eta Haitzetan Raju mendiko taldeak, zazpigarren eta denboraldiko azken irteera aurkeztu dute *Euskal Herriaren zehar, geurea ikurrina!* egitasmoaren barnean.

Ibarrak oraingoan Xiberoa ezagutzeko bi egunetan, hilaren 23an eta 24an. Helburu horre-

kin Maulera joango dira eta bertako euskaldunekin hainbat ekitaldi burutuko dituzte.

Zerrendak Zubiaurren

Antolatzaileen esanetan «irteera berezia» izango da: «Maule inguruko abade batekin harremanetan jarri gara, non lo egin genezakeen berak aipatu digu. Horretaz gain gurekin ibiliko da tertulian. Maulako gazteekin ere harremanetan gaude, Gaztetxeko belaunaldi berriekin etabar. Hauekin ere topaketa egingo dugu».

Ibarrako plazatik, hilaren 23an, 08:00etan irteerako dira. Izena emateko zerrendak Zubiaurre Tabernan jarri dituzte.

Kudeaketa eta marketin tailerrak Leitzan

A. IMAZ

Cederna Garalur elkarteak kudeaketa eta marketin tailerrak antolatu ditu. Leitzan *Merkataritza trebetasunak: Nola harrituko ditut nire bezeroak* gaia landuko dute hilaren 19tik 21era, udaletxean.

Antolatzaileen esanetan, tailer honen helburua ondorengo da: «Salmenten profesional on batek behar dituen trebetasunak ikastea

eta garatzea, gehiago eta hobeto saltze aldera».

Izena emateko aukera

Cederna Garalurrek azken 2 urtetan sortutako enpresentzat eta negozio ideia bat dutenentzat zuzenduko ditu tailerrak.

Izena emateko edo informazio gehiagorako 948 62 51 22 telefono zenbakira deitu beharko da.

@ Papereko edizioa. Sartu gure webgunean eta irakurri zure herriko edo eskualdeetako albiste guztiak. Horretarako *Papereko edizioa* jartzen duenean sakatu behar duzu. Horrela TOLOSAL-

DEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian egunero iritertzen diren albisteak agertuko zaizkizu. Herri zehatz baten inguruan idatzi diren albisteak ikusi nahi baldin badituzu, klik egin herriaren gainean eta ondoren *Papereko edizioa*. Horretaz gain albistearen inguruan zure iritzia idazteko aukera daukazu: www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Asteburuetan.** Emakume euskaldun bat eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Harremanetarako deitu 627 60 51 31 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Baserrira.** Baserrira edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Deitu 634 45 9110.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Berrobi.** 09:00etan Mendi mar-txa (Berrobi-Leaburu-Belauntza-Berrobi); 16:00etan Mus Txapelketa solastokian. 18:30. Toka Txapelketa solastoki aurrean; 19:00etan Umeen I. Frontenis Txapelketako finala.
■ **Irura.** Ikastolaren Eguna: 11:30ean txistulariekin kalejira herriko plazan; 12:00etan Haur Hezkuntzako ikasleen dantza ikuskizuna; 12:30ean Lehen Hezkuntzako ikasleen eta gurasoen arteko jolasak; 14:00etan bazkaria; jarraian euskal abestiak, 18:00etan Poxpolo ta Mokolo plazan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Txapin festa: 10:30ean poteoa; 12:00etan perkusio ikastaroa Mulanborekin, 13:00etan kalejira, Alde Zaharretik, 16:30ean herri jolasak plaza Berrian, 17etan Artez blai, 19:30ean kontzertuak Abastosen.

Musika

■ **Tolosa.** Yakuzi eta loan taldeak Bonberenean 22:30ean.

Zinema

■ **Villabona.** Gurea aretoan *Montruos contra alienigenas* filma emango dute gaur 19:00etan eta bihar 17:00etan.
■ **Tolosa.** *Hula girls* haurrentzako filma Leidor aretoan gaur eta bihar 17:00etan, *Los abrazos rotos* 19:30ean *The visitor* filma gaur 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzuz-aoza, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Mariatxien xelebreekierekin algara ugari

AMEZKETA ■ Poxpolo eta Mokolo pailazoan Mekatxis Mariatxis ikuskizuna izango zen atzo ikusgai plazako pilotalekuan. Pasadizo xebreak eta egoera barregarriak izan ziren bertaratuen gozamenarako. Pailazoek bi laguneng bisita jaso zuten: Mexikotik heldu zen Mariatxi jatorra, eta Zikin

Mari maltzurra. Magia, kolorea, lilura, sentimenduak, sentsazioak, abesti berriak eta barre eta algarak uzartu zituzten. Iker Galarza, Joseba Usabiaga, Iñaki Odriozola, Dani Gibelalde, Juan Urrretabizkaia, Iñigo Alustiza, Iñigo Aseginolaza eta Migel Casi izan ziren partaideak. L. TERRADILLOS

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

MAIATZA

21

Langileok aldaketa!

greba OROKORRA
EUREN KRISIA
euren kontura

LAB